

Oihana Aranburu Balerdi Xepelar Dokumentazio Zentroan ari da dokumentazio lanetan 1998 urtez geroztik. Bertsolaritzaren ikus-entzunezko ondarearen dokumentazio egitasmoaren antolaketan aritu da nagusiki, grabazioen bilketa saretzen, ikus-entzunezko dokumentuen digitalizazio eta katalogazioan eta bertso bildumaren tratamendu eta katalogazioan. Egun Xepelar Dokumentazio Zentroko koordinatzaile da. Jasotako formazioa, besteak beste: Informazioa Zientzietan lizentziatura (EHU, 1998), Komunikazio Enpresa Multimedien Egile eta Kudeatzaile unibertsitate masterra (EHU, 2001), Euskal Kultur Transmisioa aditu titulua (Mondragon Unibertsitatea, 2015) eta Ikus-entzunezko Dokumentalista eta Film Researcher espezializazioa (UOC, 2017).